

TEONDO

Beste inork baño len, neronek aitor dezadan: *teondo* itz berriya det. Onetxegatik: EGAN aldizkariaren orrietan au aurkitu det: "Ta te-belarraren ura dator irugarren mallan". (Ikus EGAN, 1963, 1-3, 115' garren orrialdean goi-goyen).

Egunero dakusazkit. Begi betegarri ditudan egaltxo auek, alegia. Menditxo eta muñotxo alaiak. Iya-iya te'a besterik ez batzutan beintzat. Bañan te ori ez da belarra. Tarteka-tarteka iya zugatz egin dedin arte uzten diote. Orrela, *ondo* esan dezagun. *Teondoa*. Sagarrondo eta intxaurrondo eta aranondo bezela.

Teondoari azi dedin gutxitan uzten diote. Teondorik garayena ere gizon eta erdi-edo azi oi da. Euskalerrian arta-zuztarrik luzêna añatsu.

Te izen au engalandarrak Txina'tik artu zuten. Ain zuzen ere Fukien'go eskualdetik. Txina'n iparraldean *mandarin* (agintari) izkuntzan *txa* esaten dute. Yapandarrek txineratik artutako itza onela darabilte: *o txia*. Fukiendarrena *hoclo* izkeran dago: *te*.

Emen te-orria urtean iru aldiz biltzen dute. Kimua moztuz, adar-txoa beatzez iñausi. Guraizez batzutan, Iru ostoko muturra izaten onena. Adarra luzetxo danean, kimua bost ostokoa-edo iñauten ba'dute, bilduketa orrek eske gutxigo oi du. Saltzaleak estuago ibiltzen dira. Udaberriko bildu-aldia izaten da bikañena.

Te'a ontzeko lanak luze eta ardura aundikoak dira.

ETXEBERRIA'TAR P., S. I.

Formosa: 1964-11-8.